

Lesaka ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko 2025 urteko diru-laguntzaren oinarriak

Lehendabizikoa. Diru-laguntzaren xedea

Lesakako udalak Lesaka ikergai duten gradu eta master akaberako lanak egiteko diru-laguntza proposatzen du. Master akaberako lanak ere onartzen dira.

Bigarrena. Kopurua

Deialdi honi 1.000 euro esleituko zaizkio, gehienez ere. Diru laguntza partida agortzearekin ez dira proiektu gehiago diruz lagunduko. Horretarako, balorazio batzordeak aurkeztutako proiektuen artean puntuazio gehien jaso duten 2 proiektuei diruz laguntzeko proposatuko du.

Hautatutako proiektu edo lan bakoitzari dagokion diru-laguntza 500 eurokoa izanen da.

Hirugarrena. Eskatzaileen baldintzak

- Lesakako udalerrian errolda izatea edo eta beste udalerrri batean koiunturalki erroldatua egon baina horren arrazoia kanpoan ikasketak burutzea dela justifikatzea, baldin eta aurreko errolda Lesakan izan bada.
- 2024/2025 ikasturtean azkeneko kurtsoan matrikulaturik egotea.
- Lesakako udalarekin zorrik ez izatea.

Bases de la subvención 2025 para la realización de proyectos de fin de estudios sobre Lesaka

Primera. Objeto de la subvención

El Ayuntamiento de Lesaka propone una subvención para la realización de los trabajos de fin de grado que tienen como objeto de investigación a Lesaka. También se admiten trabajos de acabado máster.

Segunda. Cantidad

A la presente convocatoria se le asignará un máximo de 1.000. Con el agotamiento de la partida subvencional no se subvencionarán más proyectos. Para ello, la comisión de valoración propondrá que se subvencionen los 2 proyectos que hayan obtenido mayor puntuación entre los presentados.

La subvención correspondiente a cada proyecto o trabajo seleccionado será de 500 euros.

Tercera. Requisitos de los solicitantes

- Estar empadronado/a en el municipio de Lesaka o estar empadronado/a coyunturalmente en otro municipio y justificar que el motivo es cursar estudios en el exterior, siempre que el empadronamiento anterior haya sido en Lesaka.
- Estar matriculado en el último curso durante el curso 2024/2025.
- No tener deudas con el ayuntamiento de Lesaka

Laugarrena. Argitalpena

Deialdi hau Lesakako Udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskualdeko komunikabideetan iragarriko da.

Bortzgarrena. Aurkezteko epea eta lekua.

Aitzineko ataletan heldu diren baldintzak betetzen dituzten eta beren burua deialdira aurkeztu nahi duten ikasleek, eranskinean heldu den bezala, eskaria egin beharko dute otsailaren 24a baino lehen Lesakako Udaleko erregistroan.

Seigarrena. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

- Eskariarekin ikasleek egingen duten proiektuaren edo lanaren memoria aurkeztuko dute, gehienez lau orrikoa. Bertan helburuak, proiektua edo gaia garatzeko izan duten motibazioa, metodologia, informazio iturriak, oinarritzko bibliografia... zehaztu daitezke. Memoria honek gradu amaierako edo master amaierako lanaren tutorearen ongi ikusia beharko du.
- Nortasun Agiri Nazionala.
- Zinpeko aitorpena, Lesakatik kanpo koiunturalki erroldatua dagoela ikasketak Nafarroatik kanpo egiten dituelako.
- Laguntza zein banku-kontutan jaso nahi duen eta hori eskatzailearen izenean dagoela ziurtatzen duen banku-etxearen agiria.
- Aipatu agiri horiek jatorrizkoak izan behar dute, edo, bestela, kopia konpultsatuak.

Cuarta. Publicación

Esta convocatoria se anunciará en la página web del Ayuntamiento de Lesaka, en el tablón de anuncios de la Casa Consistorial y en los medios de comunicación de la comarca.

Quinta. Plazo y lugar de presentación.

Los alumnos y alumnas que cumplan los requisitos establecidos en los apartados anteriores y deseen presentarse a la convocatoria, tal y como se recoge en el anexo, deberán presentar su solicitud en el registro del Ayuntamiento de Lesaka antes del 24 de febrero.

Sexta. Documentación que debe acompañar a la solicitud.

- Con la solicitud el alumnado presentará una memoria del proyecto o trabajo a realizar, con un máximo de cuatro páginas. En él se deberán detallar los objetivos, la motivación que han tenido para desarrollar el proyecto o el tema, la metodología, las fuentes de información, la bibliografía básica. Esta memoria deberá ser bien vista por el tutor del trabajo de fin de grado o de máster.
- Documento Nacional de Identidad.
- Declaración jurada de empadronamiento coyuntural fuera de Lesaka por estudios fuera de Navarra.
- Documento de la entidad bancaria que acredite la cuenta bancaria en la que desea recibir la ayuda está a nombre del solicitante.
- Los citados documentos deberán ser originales o copias compulsadas.

Aurkezturiko dokumentazioa osaturik ez badago, interesdunari dagokion dokumentazio osagarria hamar eguneko epean aurkeztea galdeginen zaio.

Zazpigarrena. Lana edo proiektuaren aurkezpena.

Eskatzaileak gradu/master akaberako proiektua edo lana memoriaren arabera egin beharko du eta laguntza emanen zaiola jakinarazi ondotik urte bateko epean; betiere, tutorearen ongi ikusiarekin. Epea gainditurik ez da lanik onartuko eta udalak emandako dirulaguntza erreklamatzeko ahalko du.

Lana euskaraz aurkeztu beharko da.

Laguntzaren jasotzaileak proiektua edo lana buruturik eta tutorearen ongi ikusia duela, Lesakako udalarekin herritarren aitzinean egindako proiektu edo lana solasaldian aurkeztuko du.

Zortzigarrena. Balorazio, kudeaketa eta ebazpen organoak.

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osaturiko batzordeak baloratuko du. Bertan, Lesakako Udaleko zinegotzi bat, Berako institutuko zuzendaria, Cederna Garalurreko teknikaria, Lesakako alkatea eta udal idazkaria egonen dira. Batzordeak arloko adituekin kontsultak egiten ahalko ditu.

Ebaluazio batzordea izanen da bekaren inguruko prozedura bideratuko duen organoa, eta proposamena eginen dio Tokiko Gobernu Batzordeari, ebazteko eskumena duen organoa.

Si la documentación presentada no estuviera completa, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez días presente la documentación complementaria correspondiente.

Séptima. Trabajo o presentación del proyecto.

La persona solicitante deberá realizar el proyecto o trabajo de acabado grado/máster según la memoria presentada y en el plazo de un año desde la comunicación de la concesión de la ayuda, siempre con la aprobación del tutor o tutora. Transcurrido el plazo no se admitirán los trabajos y el Ayuntamiento podrá reclamar la subvención concedida.

El trabajo deberá presentarse en euskera.

La persona beneficiaria de la ayuda, una vez realizado el proyecto o trabajo y con la aprobación del tutor o tutora, presentará junto con el Ayuntamiento de Lesaka el proyecto o trabajo realizado ante la ciudadanía.

Octava. Órganos de valoración, gestión y resolución.

Las memorias y propuestas presentadas serán valoradas por la comisión constituida al efecto. Estarán presentes un concejal del Ayuntamiento de Lesaka, el director del instituto de Bera, el técnico de Cederna Garalur, el alcalde de Lesaka y la secretaria municipal. La Comisión podrá realizar consultas con expertos en la materia.

La Comisión de Evaluación será el órgano encargado de instruir el procedimiento en relación con la beca y realizará la propuesta a la Junta de Gobierno Local, órgano competente para resolver.

Nolanahi ere, beka eman gabe utz daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proiektuetatik bakar batek ere ez badu gutxieneko kalitaterik erdietsi.

Bederatzigarrena. Balorazio irizpideak.

Ebaluazio batzordeak memoriak gaien interes soziala, herriko erronkak lantzeko duen ahalmena, originaltasuna, erabilitako metodologia, proposaturiko arazoak konpontzeko gaitasuna, hizkuntzaren kalitatea eta sintesi ahalmena kontuan hartuz hautatuko ditu.

Hamargarrena. Esleipenaren ezeztapena, betebeharrak ez betetzeagatik.

Baldin eta esleipendunak ez baditu oinarri hauek ezarritako epeak, lana aurkeztekoak edo epaimahaiari lanaren egoeraren berri ematekoak errespetatzen, edo eskatutako agiriak ez badira aurkezten, edo lanak ez baditu proiektuan ezarritako ezaugarriak bete, edo proposatutako lana baino aisa ere kalitate guttiagokoa bada, balorazio batzordeak Udalaren organo eskudunari eskatzen ahalko dio laguntzaren esleipena ezeztatzeko. Kasu honetan, ez da dirulaguntzarik jasoko.

En todo caso, podrá declararse desierta la beca cuando, a juicio del Tribunal, ninguno de los proyectos presentados haya alcanzado la calidad mínima.

Novena. Criterios de valoración.

La comisión evaluadora seleccionará la memoria teniendo en cuenta el interés social de los temas, su capacidad para abordar los retos del pueblo, su originalidad, la metodología utilizada, la capacidad de resolver los problemas planteados, la calidad del lenguaje y la capacidad de síntesis.

Décima. Revocación de la adjudicación por incumplimiento de obligaciones.

En el caso de que el adjudicatario no respete los plazos establecidos en estas bases, los de presentación del trabajo o de comunicación al jurado del estado del trabajo, o no se aporte la documentación requerida, o el trabajo no reúna las características establecidas en el proyecto, o el trabajo propuesto sea de menor calidad que el propuesto, la comisión de valoración podrá solicitar al órgano competente del Ayuntamiento la revocación de la adjudicación de la ayuda. En este caso, no se recibirá subvención.

Hamaikagarrena. Laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntzaren ordainketa deialdi honetan eskatutako dokumentazio-agiria guztiak aurkeztu eta balorazio batzordeak aurkeztutako lanei bere oniritzia eman eta ondoren gauzatuko da.

Hamabigarrena. Lanaren argitalpena.

Lana argitaratzen bada udalari kopia bat formatu digitalean entregatu beharko zaio.

Deialdian parte hartzen dutenek horri buruzko arauak oro onartuko dituzte eta men eginen diete Lesakako Udalak hartzen ahal dituen erabakiei; epaia apelaezina izanen da. Lehiaketaren oinarriak ez betetzeak lehiakidea kanporatzea ekarriko du berekin.

Hamahirugarrena. Arau-haustek eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

Hamalagarrena. Datuen babesa.

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Hamabortzgarrena. Aplikatuko den araudia.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Foru Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira

Undécima. Pago de la ayuda.

El pago de la subvención se realizará previa presentación de la documentación requerida en la presente convocatoria y visto bueno de los trabajos presentados por la comisión de valoración.

Duodécima. Publicación de la obra.

En el caso de que se publique el trabajo se deberá entregar al ayuntamiento una copia en formato digital.

Los participantes en la convocatoria aceptarán todas las normas al respecto y acatarán las decisiones que pueda adoptar el Ayuntamiento de Lesaka, siendo inapelable la sentencia. El incumplimiento de las bases del concurso conllevará la expulsión del concursante.

Decimotercera. Infracciones y sanciones.

Las infracciones y sanciones se registrarán por lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Decimocuarta. Protección de datos.

Los datos de los solicitantes se tratarán de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

Decimoquinta. Normativa aplicable.

En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local y la Ley Foral 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Hamaseigarrena. Ebazpena eta helegiteak.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabeherak oro ebazteko. Emanen diren administrazio-ebazpenen aurka ondoko errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Lesakan, 2023ko abenduaren 14an.

Alkatea,

Ladis Satrustegui Alzugaray

Decimosexta. Resolución y recursos.

La presente convocatoria tiene carácter administrativo y, en consecuencia, el Ayuntamiento está facultado tanto para su primera interpretación como para la resolución de cualquier incidencia que pudiera surgir en su aplicación y resolución. Contra las resoluciones administrativas que se dicten podrá interponerse potestativamente alguno de los siguientes recursos:

- Recurso de reposición dirigido al órgano autor del acto administrativo en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la notificación del acto que se recurre o, en su caso, de su publicación.
- Recurso de alzada dirigido al Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de un mes desde la notificación o publicación del acto recurrido.
- Recurso contencioso-administrativo dirigido al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Pamplona, en el plazo de dos meses. Dicho plazo se contará desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acto recurrido.

En Lesaka, a 14 de diciembre de 2023.

El alcalde,

ERANSKINA I. Parte hartzeko eskaria

Jaun/ Andrea:

NAN:

Telefonoa:

Helbidea:

Lesakako udalak ikasketa akaberako proiektuak edo lanak herriarekin zer ikusia duten gaiei buruz egiteko antolatu duen deialdirat aurkezten naiz, horretarako, deialdiaren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa aurkezten dut:

Lesakan, 2023ko ren (e)an.
Eskatzailearen sinadura:

Aurkezturiko dokumentazioa:

- a. Eskaria ERANSKINA
- b. Lana edo proiektuaren memoria eta tutorearen oniritzia duela ziurtatzen duen agiria.
- c. Eskatzailearen curriculum vitae
- d. Ikasketa akaberako proiektu edo lanean matrikulaturik egotearen egiaztagiria
- e. Errolda agiria edo zinpeko aitortza, erroldatzea kanpoan izatea ikasketa kanpoan egiteagatik dela adieraziko duena.
- f. Banku-kontua adierazten duen banku-etxearen agiria